



Emakumeen eskubideen aldarrikapena.- Martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, egitarau zabala antolatu dute Udalak eta herriko eragileek. Aste osoan zehar ekintza ugari egin dituzte emakumeen eskubideak aldarrikatzeko asmotan. Udal ordezkariak eta gerturatu ziren zenbait herritarrek elkarretaratzeari zuten eguerdian Okendo plazan. Arlo ezberdinetan emakumeek historian egindako lanari buruzko erakusketa prestatu zuten Antonio Mercero aretoan herriko ikastetxeetako gaztetxoek eta, amaitzean, kontzentrazioa gehitu ziren. Arratsaldean, ohiko Udalbatzarrean, adierazpen instituzionala egin zuten. Talde guztiek onartu zuten Jesus Zaballos alkateak irakurritako testua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna "gure balioen eta europar gizartearen oinarritzko elementua" dela aldarrikatu zuten. Lasarteko Talde Feministak eta beste eragileek Donostiako Bulebarretik abiatu zen manifestaziora joateko deia luzatu eta egitarau mamitsua prestatu dute. Besteak beste, Loidibarren frontoian gaur jokatu duten pala txapelketa. Ondoren, Xirimiri Elkartean emakumeen afaria egingo dute. / 4. orrialdean gehiago

3 GURE ESKU DAGO Erabakitzeke eskubideari buruzko mahainguruak

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago taldeak erabakitzeke eskubidearekin lotutako bi mahainguru antolatu ditu. Lehenengoa gaur izango da, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur etxean. Honetan Kataluniako SUMATE elkarteko kideak eta Jesu Uzkundun izango dira hizlariak. Hurrengoa, asteartean izango da eta bertan kirolariak izango dira hizlari.

3 UDALBATZARRA Lurpeko zaborrontziak eta bidegorria aztergai

Ohiko Udalbatzarra izan zen asteartean. Bi gai izan ziren mahai gainean, lurpeko zaborrontziak eta bidegorri sarea. Lurpeko zaborrontzien gaiak alderdien arteko eztabaida sortu zuen. Honetaz gain, EHBilduren eskaera baten ondorioz, Udal Araudi Organikoa ere izan zen protagonista.



8 IRAKURLE TXOKOA 'Amalur' ikuskizunaz goatzeko aukera apirilaren 16an

Lasarte-Oriako pailazo bihurriek, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 'Amalur' ikuskizuneko bi saioa eskainiko dituzte apirilaren 16an, Manuel Lekuona kultur etxean. Saioak Lasarte-Oriako Irakurle Txokoa diruz laguntzeko izango dira. Sarrerak salgai izango dira gaur arratsaldetik Jalgi Kafe-Antzokian eta Artizar tabernan.

DESKONTUA

%40

2016ko EGUZKITAKO
bataurrekoetan

1en

URTEURRENA

www.multiopicasgipuzkoa.com

SOILIK MARTXOAREN

16, 17, 18 eta 19an

Ray-Ban CH amette OAKLEY RALPH roxy

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15

Tel.: 943 37 74 55

LASARTE

MULTIOPTICAS

lehena zerbitzu optikoetan

Neure kabuz

Zorion agurrak

Jaiotzak Heriotzak



Jexux Artetxe


Armagabetzea

Pakearen aldeko 3garren Foro Sozialaren ospakizunarekin batera, desarmearen gaia etorri da berriz egunkarietako izenburuetara. Bidezkoak ez diren arma guztiak entregatzea beharrezkoa dela ez daukat inolako zalantzarik, baina hasitako bidetik ez garela inora iritsiko sumatzen dut baita ere. Bistan da armak baliogabetzean aurreratzeko egin behar denaren inguruko adostasunik ez dagoela.

Ikustagun zer gertatzen ari den. Alde batetik, indarkeria erabili dutenek armak zigilatzea proposatu dute beraien gustura egindako desmilitarizatze prozesu baten baitan. Bestetik, Españako poliziaren ekimenez armak kentzea bezalako bermerik ez dagoela diote Madrilgo gobernukoek. Ageri denez, bietako bakoitzak bere jokora makurtuko den bukaera nahi du. Ez dakit gainera gure Jaurlaritzaren parte-hartzetik prozesua euskotarren mesedetara ekarri daitekeen. Orain arte gertatutakoarekin, ezin gaitezke fio.


Erakunde armadun ilegitimoen armategia desagite hutsarekin ez dugu ezer lortuko, bestalde, indarkeriaren erabilera elikatzeko egin izan diren diskurtsoak baliogabetzen ez badira bide batez. Carmen Gisasolak preso ohiak esaten duen bezala, indarkeriaren egile eta erantzule jakinek borroka armatuaren bidezkotasuna defendatu izan zuten formulazio teorikoei jarraitu zieten. Ez da nahikoa beraz desarme materiala. Ezin daiteke armagabetzea planteatu egindako kaltearen zuzengabekeria aitorzeko inolako asmorik gabe.

Itxuraz, orain ez dago bizikidetzaren hautsi nahi duen alderdirik. Herriko ondarea bezala zaindu nahi dugu denok, datozen belaunaldikoentzat onduta utzi nahi omen dugun elkarbizitza hori. Horrela gerta dadin, pistola eta lehergaiez aparteko desarmearak ere beharko lirateke. Izan ere, iraganean sortu eta oraindik bizirik diren diskurtsoen barrutiari dagokioneko desarmea eta autokritikarik gabe ezin izango dugu gatazka egoera atzean utzi eta auzokidetzaren batean elkarrekin bizi.




Oihane

Zorionak printzesa! Gozatu zure egun handiaz, 6 urte bete dituzu jada, guapa! Muxu handi bat zure familiaren partetik, asko maite zaitugu!




Oier

Zorionak Oier! Asko maite zaitugu, gure pitxitxi! Unax, Maddi, amatxo eta aitaxo.




Manolo

Zorionak Manolo, etxeko partetik!!! Muxu handi bat eta ondo pasatu zure egunean!




Iugatz

ZORIONAK maitia. Irtsi da 7 kandlei putz egiteko eguna. Ondo pasa. Musutxuak familia guztiaren partetik.




Maialen

Zorionak!!! Primeran pasa genuen zure urtebetetzea ospatzen!!!




Xuhar

Zorionak gure deaburuxoari! Muxutxuak etxeko partetik.



Eneritz

Zorionak bihotza!!! 9 Zorionak "pixpireta", muxu handia familiaren gurasoen partetik txo partetik. Asko maite komarrubizko lau zaitugu.



Mara

Zorionak "pixpireta", muxu handia familiaren gurasoen partetik txo partetik. Asko maite komarrubizko lau zaitugu.



Maritza

Zorionak maitea zure hemezortzigarren urtebetetzean!! Arjomaren partetik.



Iñaki

Zorionak Iñaki zure lagunaren partetik.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

- Garajea saltzen da Andatza plazan, 44 metro karratu. Monobolumen edo furgoneta batentzako edo 3 kotxeentzako egokia. 647 437 388.
- Pisua alokairuan Usurbilgo kaxkoan, pisu polita eta argitsua. 2 gela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Altzariz horituta. Tlf: 670 070 562
- Etxea salgai Cascanten (Nafarroa) nekazar eremuan. 2000 metro karratuko lur eremua. Etxeak 93 metro karratu, 2 gela eta egurrezko berogailudun egongela. Trastelekua. Informazio gehiago, 655 738 167

Salerosketa

- Psikologiako lehenengo mailako liburuak salduko nituzke. 943 36 33 71
- 'Martins' bota gorriak salgai, 47 neurrikoak. Gutxi erabiltakoak dira; 40 eurotan saltzen ditut. Joseba. 688 659 165/943 36 00 42.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak eta haur edo pertsona adinduen zaintza lanetarako. Interna edo externa moduan. 685 520 590
- 45 urteko gizonak pertsona adinduen edo dependenteak zaintzen lana bilatzen du. Beste sektoreetara ere irekia. Esperientzia handikoa eta arduratsua. Hobe goizetan. 943 161 350 edo 692 334 211.
- Nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest egongo nintzateke. 38 urteko emakumea naiz. Egun osoan aritu naiteke eta esperientzia dut. 673339665

Bestelakoak


- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068.

Jaiotzak

- Aiur Jauregui Ormazabal, martxoaren 2an.
- Lara Iñurrita Ugartemendia, otsailaren 27an.

Heriotzak

- Pilar Urruzola Iraola, martxoaren 8an, 92 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 11

De Miguel, Kale Nagusia 32

943 371151

Larunbata, 12

Orue, Jaizkibel plaza 2

943 362652

Igandea, 13

Orue, Jaizkibel plaza 2

943 362652

Astelehena, 14

Gil, Kale Nagusia 24

943 361529

Asteartea, 15

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6

943 363549

Asteazkena, 16

Gil, Kale Nagusia 24

943 361529

Osteguna, 17

Urbistondo, San Frantzisko 1

943 366567

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Echeveste Elozegi, Elkano 9

Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak


Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak


Babeslea




LASARTE-ORIA

UDALA

Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIAIA
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea

Geltoki kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika

publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galarzi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALA



Lurpeko zaborrontziak eta bidegorri sarea izan ziren hizpide astearteko ohiko udalbatzarrean.

Lurpeko zaborrontzien gaiak eztabaida sortu zuen

Udal Araudi Organikoa indarrean zen lehenengoz eta hainbat desadostasun izan ziren

Martxoko ohiko bilkura egin zen asteartean Lasarte-Oriako Udalean. Bi emendakin ziren landu beharrekoak, lurpeko zaborrontziak ixtea eta Lasarte-Oriako bidegorri sarea hobetzea. Soterratuen gaiak sortu zuen eztabaida gehien alderdien artean.

TXINTXARRI

Asteartekoa Udal Araudi Organikoa indarrean dagoenetik lehen Udalbatzara izan zen eta neurri berri hauen eraginarekin antzeman zen bilkuran.

Emendakinak aztertzeke modua aldatu da eta lehenik jatorrizkoa lantzen da eta hau eroriz gero, emendakin alternatiboa.

Bestetik, EH Bilduk bere emendakina puntuka bozkatzeke eskaerak eztabaida sortu zuen udalbatzarkideen artean eta eten baten ostean, idazkariak azaldu behar izan zuen prozedura.

Baina batzarreko gai ordenarekin hasi baino lehen, martxoaren 8a izaki, Jesus Zaballos alkateak alderdi guztiek adostutako adierazpen instituzionala irakurri zuen.

Jarraian aurreko bilkureta-ko aktak onartu eta 2015 ekitaldian kredituak aldatzeko gaur arte bideratutako dosierren berri eman zen.

Lurpeko zaborrontziak

Lurpeko zaborrontzien gaia landu zen lehenik. EH Bildu eta Lasarte-Oriak Ahal du alderdiek lurpeko zaborrontzi ixteko aurkeztutako emendakin transakzionala eztabaidatu zen. Taldeek zaborrontziek sortzen dituzten gastuengatik, besteak beste, lurpekoak itxi eta beste irtenbide bat aurkitzeko herritarren proposamenak batzea proposatzen zuten.

PSE-EEK eta EAJk haien desadostasuna agertu zuten.

Oinarrizko mozioa moldatu, puntu batzuk gehitu eta EAJren iritziz akordiorako nahi eza azpimarratzen zuten ñabardurak zeudelako, hala nola, birziklapen alde egiten dela baina tasak %60koa izan behar duela.

PPk argi azaldu zuen ez daudela zaborrontziak ixtearen alde eta arazoa aztertu beharko litzatekeela, irtenbide bat emateko.

Emendakina puntuz puntu bozkatu eta guztiak atzera bota zituzten gero emendakin alternatiboa aurkeztu behar zuten alderdien, PSE-EEren, EAJren eta PPren aurkako bozkek.

Mozio alternatiboa, berriz, aurrera atera zen. Honen bitartez, herriko birziklatze tasak igotzea, zaborrontzien egoeraren azterketa tekniko bat eskatu eta irtenbideak bilatzea eta azterketa eskuan izanik, alderdi guztiek zerbitzuaren etorkizuna erabakitzea adostu zen.

Bidegorri sarea

EAJk, berriz, bidegorri sarea hobetzeko mozioa jarri zuen mahai gainean eta aho batez onartu zen.

Horren bitartez, ingurunea eta osasunean dituen abantailengatik, aisia eta garraioko bitarteko bezala bizikletak duen onura publikoa aitortu zen.

Era berean, eremu publikoak bizikletaren trafikorako egokitzeke neurriak hartzeko eta onartzeko beharra kontsideratzea eta aintzat hartzea

zehazten da, bidegorrietatik segurtasunarekin eta modu eroso batean ibiltzeko herritarrok dugun eskubidea bermatu ahal izateko. Neurri horiek, seinaleztapen egoki bat, eremu publikoarentzako diseinu arauak, eta beharrezkoa denean, txirrindulariei zuzendutako espazio berezi bat erreserbatzea ere jaso beharko litzukete.

Eta neurri horiek, garraioko udal eta bailara planetan, Arau Subsidiarioetan eta Udal Agenda 21ean jasoko dira.

EH Bilduk EAJk mozioan erabilitako erretorikaren helburua "ziria sartzea" dela salatu zuen. Gipuzkoako Foru Aldundiak bidegorrien aurrekontua murriztu baitu, herriera jaitsiz eta Udalak laguntzeko partida deuseztatu baitute. "Esate baterako, ezin go da kotxerik gabeko eguna egin". Horregatik, helburu ekonomikoak izatea leporatu zion Aldundiari, mugikortasun jasangarriaren aurka eta Donostialdeko metro eta AHTaren alde egiten ari direlako.

EAJko bozeramaileak aldarrikapen hori beste foro batean egitekoa zela adierazi zion.

Emendakin honek bi emendakin gehigarri izan zituen. Horien bitartez, PSE-EEK proiektuan zegoen bidegorria amaitzea eta Foru Aldundiari emendakinaren berri ematea gehitu zuen. Hori aho batez onetsi zen.

Eta EH Bilduren eskutik, 2016 urteko aurrekontuan bidegorrietako partida handitzeko eskaera egingo da. Horrek EHBildu, EAJ, Lasarte-Oriak Ahal du eta PPren babesa izan zuen. PSE-EE abstenitu egin zen.

IKASTAROA

Janari manipulatzailerik ikastaroa

Lasarte-Oriako Udalak, Elkolab enpresarekin batera, ostalari-tzari zuzendutako janari manipulatzailerik ikastaroa emango du hilaren 17an.

Osasun sailak ostalaritzan eskatzen dituen autokontrol edukiak landuko dituzte. Osasun zentroko bigarren solairuan emango dute ikastaroa martxoaren 17an 9:30etik 13:30era. 45 euroko prezioa izango du langileentzat eta 35 eurokoa langabetuentzat. Erregimen orokorrean lan egiten dutenek bonifikatzeko aukera dute.

Informazio gehiago nahi izanez gero eta izena emateko deitu ondorengo telefonoetara: 943 36 16 05 (OMIC) edo 943 53 33 03 (Elkolab).

AMARAUN KLUBA

Lurraren gaia lantzeko ipuinak

Amaraun Klubeko HH3 eta HH4 mailako haurrek Haizea, Lurra eta Itsasoa ipuin kontalari saioen hirugarren hitzordua dute hurrengo asteartean, martxoaren 15ean. Oraingoan, Lurra izango da protagonista. Ipuina amaitzean, ekintza osagarriak egingo dituzte entzundako kontakizunen inguruan. Besteak beste, antzerkiak, masajeak eta eskulanak.

Ipuin kontaketa berezi hau Amaraun ludotekan izango da, asteartean, 17:30etik 18:30ak arte eta honetan parte hartzeke izena eman behar da. 943 37 14 48 telefonoan, aisia@ttakun.eus helbide elektronikoa edo Ttakuneko bulegoan egin daiteke inskripzioa.

AIRE GARBIA

Andoaingo manifestaziora deialdia

Aire Garbia plataformak dei egiten die lasateoriatarrei bihar Andoainen egingo den manifestazioan parte hartzera. Osasunaren alde eta errausketaren kontrako mobilizazioa arratsaldeko 17:00etan abiatuko da, Etxeberrieta plazatik.

"Andoaindarek gure parte-hartzea estimatuko dute, guk azaroan egin genuen manifestazioan haiek parte hartzea estimatu genuen bezala", adierazi dute plataformako kideek.

Aire Garbia plataformaren ustez, otsailaren 24an medikuekin antolatu zuen hitzaldian zein otsailaren 28an Zubietako martxan, nahiko agerian geratu zen asko eta asko direla arazo honen aurrean sentsibilizatuta dauden lasateoriatarrak. "Eta ez dugu duda egiten Andoaingo manifestazioan ere agerian geratuko dela. Azken batean, Andoainen zein Lasarte-Orian arazo bera dugu, Zubietan ezarri nahi duten erraustegia, eta kutsadurak ez du udalerrien arteko mugarik ezagutzen," ohartarazten dute.

Katalunia eta kirola hizpide

2016ra begirako erronkak zehaztu ditu Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok. Batetik, adierazpen bat aurkeztuko dute jendaurrean apirilaren 8an. Ados dauden norbana-koek sinatuko dute, eta ahalik eta jende gehien biltzea du helburu, herritarren borondatearen islada izan nahi baitu.

Bestetik, hausnarketa bul-tzatu nahian, zenbait topagune antolatuko dituzte. Lehenengo biak martxoan izango dira.

Sumate

Gaur, Kataluniatik Sumate taldeko kideak etorriko dira Manuel Lekuona kultur etxeko batzar aretora arratsaldeko 19:00etan. Garai batean Espainiar Estatutik Kataluniara migratutako pertsonen osatzen dute elkarteak, eta gaur egun bizi duten prozesuan erabakitzeke eskubidearen alde agertu dira.

Lasarte-Oriako Gure Esku Dagoko kideek adierazi dute-nez, "egoera antzekoan diren herritar ugari daude" gure herrian, eta "horiek gonbidatu nahi dituzte bereziki".

Jesus Uzquidunek, CCOO Euskadi sindikatuko kide ohiak ere parte hartuko du hitzaldian.

Kirolariak zer diote?

Martxoaren 15ean, 19:00etan, egingo dute bigarren topagunea. Kirolari eta kirolaren arloko langileak gonbidatu dituzte gurean euren iritzia parteka ditzaten. Erabakitzeke eskubidearen inguruko hausnarketak partekatuko dituzte, batez ere, haien arloari begirakoak.

Besteak beste, bi lasateoriatar izango dira gonbidatuen artean: Realeko jokalaria Iraia Iparragirre eta Asegarceko pilotari Axier Arteaga.



Ikasleek emakume garrantzitsuei buruzko erakusketa prestatu zuten. Maria Morales idazle andoaindarrak, berriz, "La consciencia del tiempo" eleberria aurkeztu zuen Emakumeen Zentro Zibikoan.



Ospakizuna eta aldarrikapena

Martxoaren 8ko egitarau mamitsua Lasarte-Orian

Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldi ugari burutu dira Lasarte-Orian aste honetan. Sexuen arteko berdintasuna eta emakumearen irudia aldarrikatzeko helburuarekin mahainguruak, ipuin kontaketa eta adierazpen instituzionalak egin dituzte. Asteburuko egitasmoek emango diote amaiera egitarauari.

honetan. Astelehenean kafe tertulia egin zuten Elebeltzen.

Asteazkenean "El test de la vida" dokumentala proiektatu zuten. Identitate ez normatiboen inguruko solasaldia izan zuten ondoren Amets Jordan Arrietarekin.

TXINTXARRI

Urtero legez, Emakumearen Nazioarteko Eguna inguruan hamaika egitasmo egin dira Lasarte-Orian.

Erakusketa

Herriko ikastetxeetako ikasleek Antonio Mercero aretoan erakusketa antolatu zuten martxoaren 8an.

Emakumeek arlo ezberdinetan –historian, filosofian, zientzian...– izandako papera aldarrikatu dute; ikasgelan egindako lana erakusketa gelara eramatean.

Emakumeen balioaz jabetzeko liburua

Maria Morales kazetari andoaindarrak "La consciencia del tiempo" eleberria aurkeztu zuen asteartean Emakumeen Zentro Zibikoan.

"Emakumeari egindako omenaldia" dela azaldu zuen

idazleak. Eleberria sortzeko prozesua partekatu zuen bertaratu ziren lasarteoriatarrekin.

"Gizarteak ez du emakumea baloratzen. Baina askotan gu geu gara aintzat hartzen ez garenak. Hemen-dik hasi behar gara aurrera egin eta besteek ere gure balioaz konturatzeko", nabarmendu zuen andoaindarrak.

Ipuin kontalariak

Haur eta helduentzako ipuin kontaketa saioek hartu zuten lekukoa atzo. Beatriz Egizabalek txikienak gozarazi zituen "Batak panpinak, besteak superheroiak" kontakizunarekin.

"Hotzikara" ipuin erotikoa entzun zuten nagusiek Manuel Lekuona kultur etxean Ines Bengoaren eskutik.

Lasarte Moria

Lasarteko Talde Feministak zenbait egitasmo antolatu ditu aste

Azken txanpa

Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruko ekintzak asteburuan luzatuko dira. Gaur arratsaldeko 18:00tan pala txapelketa jokatu dute Loidibarren frontoian. Ondoren, emakumeen afaria egingo dute Xirimiri Elkartearen. Txartelak 10 euroko kostua izango du eta ohiko tabernetan egongo dira salgai.

Lan eta Lan antzerki taldeak Noel Cowarden "Un espíritu burlón" lana eskainiko du 19:30etan Manuel Lekuona kultur etxean.

Larunbatean lehenengo aldiz Berdintasunaren aldeko martxa egingo dute. Okendo plazatik aterako dira 12:00etan eta Lasarte-Oriari buelta osoa emango diote.

Egitaraua amaitzeko, igandean gorputza astintzeko parada egongo da Okendon egingo duten zunba saioan.



Ipuin erotikoen eta identitate ez normatiboen buruzko dokumentalek ere bete zuten egitaraua.



"Batak panpinak, besteak superheroiak" ipuinarekin gozatu zuten txikienek.



Poteo feminista egin bitartean, Kukukako lagunek dantzatu zuten.

Aste Santuetan ezagutu Euskadi

Garagardoa edo herri kirolak eginez, esperientzia berriak bizitzeko aukera aparta

Euskadik aberastasun natural, kultural eta gastronomikoa handia du. Hori dela eta, Aste Santuan milaka txoko ezberdin bisitatzeko aukera dugu etxetik oso gertu. Ekintza paregabe eta ahaztezin asko probatzeko aukera ere eskaintzen dute leku horiek. Familiek, bikoteak edo lagun taldeek egiteko planak izan daitezke. Gure herrialdea esperientzia paregabeen bidez ezagutzeko modu aparta da proposatzen dizueguna.

TXINTXARRI

Bidaia edo oporraldian gogora ekartzen ditugunean hainbat irudi etortzen zaizkigu burura. Bizienak esperientziekin daude lotuak. Hori dela eta, ohiko ibilbide turistiko edo museoez gain, Euskadi ezagutzeko beste modu bat badago ere, euskal esperientziak bizitzea. Hauek gure kulturen, gastronomian edo kirolean murgiltzeko aukera ematen digute eta hauen bidez, gure ondareari buruz gehiago ezagutu dezakegu. Hona hemen bi proposamen.

Gorbeia garagardoa

Non:

'Baías Garagardotegia', Oiardo, Urkabustaiz, Araba

Noiz:

Urte osoan zehar. Azaroa itxita.

Esperientzia:

Garagardoa nola ekoizten den ezagutu eta garagardo dastaketa

Araba Errioxa aldeko ardoengatik ezaguna bada ere, badu beste berezitasun bat Gor-

beiaiko Parke Naturala. Bertan, zehazki, Gorbeia mendiaren magalean dagoen Baías Garagardotegian biziko dugu lehen euskal esperientzia. "Ingurune paregabea da hau, ez da oso turistikoa eta oso polita da," adierazi digu Baías garagardotegiko Idoiak.

Garagardotegia baserri zaharberritu da eta Baías ibaiaren ondoan dago kokatua. "Inguruneari lotuta zegoen kokaleku bat nahi genuen. Gainera, baserriaren berrerabilpena egitea ideia ona zela irudi tu zitzaigun," azpimarratu du.

Metodo industrialetatik aldendutako artisau-ekoizpena egiten du garagardotegiak eta honetarako, kalitatezko lehen gaiak erabiltzen ditu. Hala nola, Baías ibaiko ur fresko eta garbia.

"Lau materialekin egindako garagardoa da gurea: ura, malta, lupulua eta legamia. Ura % 95 da eta Gorbeia mendilerrotik datorrena da. Ez du gehigarririk, ez pasteurizaziorik. Hartzidura naturalki egiten da," azaldu du.

Garagardotegiak eskaintzen duen bisita gidatuan ekoizpenaren nondik nora-



Garagardoa artisau-erara nola ekoizten den ezagutzeaz gain, ekoizpen horren fruituak dastatu ahal dira Baías garagardotegian.

koak azalduko zaizkie esperientzia honetara hurbiltzen direnek. Ehotzeko sistema, galdara, garagardo-lantegia, hartzidura gela, botilaratze katea bisitatuko dituzte. "Jendea harritura geratzen da prozesuaz. Ardoaren ekoizpena ezaguna da, baina ez hainbeste garagardoarena. Eta asko kontsumitzen den produktu bat da hau."

Hau guztiaz gain, bertako garagardoak, haien ezaugarriak, osagarriak eta barietateak ezagutu eta hauek dastatzeko parada ere izango da. "Bisitariak garagardoari buruzko ideia bat dute buruan, baina gure garagardoak ezberdinak dira, bai ekoizpen motagatik, baita dituzten usain eta edakerengatik ere."

Herri kirolak zuzenean

Non:

Andra Mari pilotalekua, Getxo, Bizkaia

Noiz:

Astea Santuan eskaintza berezia: martxoaren 21n, 22an, 23an eta 28an arratsaldez.

Urte osoan zehar, astelehenetik ostiralera, arratsaldez.

Iraupena:

Ordu bete

Taldea:

100 pertsona gehienez. Gutxienezko kopururik ez dago.

Eskaera egitea beharrezkoa da

Hizkuntza:

Gaztelera, euskara, ingelese eta frantsesa.

Esperientzia:

Txapelketetan parte hartzeko trebatzen ari diren gazteen eskutik herri kirolak ezagutzea

nak herri kiroleko bertako, zein nazioarteko txapelketetarako prestatzen dira.

Elkarteko kide eta begirale batek herri kirolean dauden modalitate ezberdinen berri eman eta azalpenak eskaintzen dituzte. "Harri-jasotzea, lokotxak biltzea, fardo altxatzea, sokatira, gizon proba, trontza eta ingudea dira probak. Kirolaren jatorria azaltzen da, zein zailtasun tekniko dituen, zein txapelketak egiten diren..."

Kirol bakoitzeko ikuskizuna ere egiten dute. "Bisitariak joko edo kirolak nola egiten den ikusten dute, gero haiek egin beharko baitute".

Izan ere, alde teorikoaren ostean, alde praktikoa baita. Honetan bisitariak nahi dituzten herri kirol modalitate edo jokoak probatzen dituzte. "Zati hau da garrantzitsua. Normalean, fardo altxatzea eta harri-jasotzea dira gehien gustatzen diren probak".

Antolatzaileek aipatu legez, "taldearen arabera moldatzen ditugu saioak. Taldea handia bada, kirol guztiak probatzen dituzte. Baina izan daiteke lagun talde bat etortzea eta probaren batean lehiaketa egin nahi izatea. Haurrak badaude ere, joko modukoak egiten dira".

"Denontzat baina bereziki haurrentzat, gure kultura ezagutzeko esperientzia ederra da, baita gozatzekoa ere".

Aste Santu honetan bizi erabateko euskal esperientzia eta Euskadi ezagutu ezazu!



Trontza, sokatira, lokotxak biltzea... herri kirol edo joko ezberdinak probatzeko aukera dago Herri kirolak zuzenean, apostu egin nahi? esperientzian.

Esperientzia hauen edo beste hainbaten informazioa
euskaditurismo.eus eta viajesporeuskadi.es
 orrialdeetan eskuragarri.

EUSKADI

LABURRAK.-

Balio handiko puntua erdietsi zuen Lasarte Kafe Bar Ostadarrek larunbatean, Orixeren aurka (2-2)

Meritu askoko berdinketa eskuratu zuen jubenil mailako Lasarte Kafe Bar Ostadarrek larunbatean, Teep Samaniego Orixe bosgarren sailkatuaren kontra. Bina berdindu zuten, Kiroldegian jokaturako partidari.

Bigarren zatian iritsi ziren golak. Etxeko taldeak ireki zuen markagailua, Unai Anguianok sartutako golari esker. Lortutako abantaila gordetzen saiatu zen Lasarte Kafe Bar, baina pozak ez zion gehiegi iraun, Teep Samaniego Orixe bi jokalditan buelta eman baitzion markagailuari. Escribano eta Azkueren jokalariek ez zuten etsi ordea, eta estrategia jokaldi batean binakoa ezarri zuen Andoni Iturbek. Imanol Azkue da taldearen entrenatzaileetako bat. Haren esanetan, "denboraldiko nor-gehiagoka onena" jokatu zuen taldeak larunbatean.

Jubenil mailako taldea egiten ari den sasoi onak arreta piztu die Gipuzkoako selekzioko prestatzaileei, eta bi jokalaria deitu dituzte haiekin entrenatzeko: Unai Anguiano eta Andoni Iturbe.



LOKEko gimnastak Udaberri txapelketako lehen fasean lehiatuko dira Hernanin, igandean

Maite Ruedak entrenatutako hainbat gimnastak hartuko dute parte txapelketa horretan. 10:00etatik 14:00etara jokatu da, igandean, Hernanin. Talde hauek ariko dira bertan: LOKEko infantilak –uztaiekin–, LOKE-Landaberriko alebinak –bi kide libre, eta hiru pilotekin– eta LOKE-Sasoetako alebinak –bi libre eta hiru pilotekin–. Infanti mailan hemeretzi talde ariko dira denera, eta 29 alebinetan.

Eneko Castroren omenezko XIX. Krosa jokatu da igandean, Atsobakar parkean

Landaberri ikastetxeko gaztetxoek Atsobakar parkean barrena egingo dute lasterka igande honetan, Eneko Castroren omenezko XIX. Krosan. Ikastetxeak jakinarazi duenez, lasterketak goizeko hamaiketan hasiko dira. Urteroko hitzordua dute igande honetan ikasle, irakasle, guraso eta lagunek, Atsobakar parkean.

Eneritz Busto ederki Madrilen, pista estaliko Espainiako atletismo txapelketan

Eneritz Busto junior kategorian aritzen da berez, baina aurrean pista estalian lortutako markari esker –8.88 60 metro hesietan–, absolutu mailakoan aritzeko sailkatu zen. Pasa den asteburuan lehiatu zen, Madrilen. Lehen kanporaketa gainditu zuen, 8.92ko marka eginez. Finalerako ezin izan zuen sailkatu. Lehiaketa hori esperientzia hartu eta are atleta hobia izateko baliatuko du herritarrak.

TRIATLOIA.-

Trinko triatloi taldea sortu dute

Hamabi kide ditu taldeak, oraingoz; herritarrak dira denak

Entrenamendu-saio luze eta gogorrekin nahikoa ez, eta administrazio-lanetan murgilduta ere ibili dira herriko hainbat triatleta hilabeteotan. Ahaleginak eman ditu fruituak. Triatloi talde propio bat edukiko du Lasarte-Oriak hemendik aurrera: Trinko. Hamabi kidek osatzen dute, oraingoz.



Trinko taldeko hainbat kide, taldearen kamiseta soinean eta logo berria eskutan.

IÑIGO GONZALEZ

Izena ez dute aukeratu arrazoi berezi batengatik, baina talde propio bat eratzea bai. Jaioberria da Trinko Lasarte-Oriako triatloi taldea, baina taldekide gehienak ez dira hasiberriak. Orain arte ere aritu dira igerian, korrika eta bizikletan, baina Saiatuz txirrindulari taldeko adar gisa.

Talde propioa eratzearen motiboetako bat izan da erakustea triatloiak presentzia duela herrian: "Orain arte, txirrindulari talde baten parte izan garenez, apur bat kamuflatuta egon gara, ez zelako horren agerikoa bazegoela triatleta talde bat herrian, diziplina horretan aritzen zena", aipatzen dute kideek.

Era berean, uste dute "askatasun puntu bat" ere emango diela Trinkoko kide bezala aritzeak, eta horrek ekarriko dizkiela zenbait abantaila: "Diru

laguntzak eska ditzakegu eta entrenatzeko zein konpetitzeko askatasun gehiago ere ematen digu".

Taldea irekia eta anitza

Hamabi triatletak osatzen dute Trinko, oraingoz: Asier Gorostegi, Imanol Arteaga, Leo Juarez, Enaitz Ibarburu, Miguel Angel Fernandez, Zigor Gallardo, Peio Fadrique, Javi Lopez, Pablo Ucerro, Andoni Salsamendi, Mikel Olarra eta Iñigo Valdiviak. Emakumerik ez da sartu taldean oraindik; kideek gonbita luzatzen diete. Horrekin batera, zehaztu dute ez dela izan behar eliteko kirolaria, Trinkoko kide izateko. "Afizionatu talde bat gara, triatloia atsegin dugu. Profil desberdinetako kirolariak gaude bertan", diote.

Dagoeneko sei babesle ditu Trinkok: Cecilia fruta denda, Taberna Kebab, Patxi Larrañaga, Dotore jantzi-denda,

TaPuntu herriko enpresa eta Avenida taberna. Logoa ere badute: TaPuntuk diseinatu du. Ekipazio ofizialak apirila-maizta aldean jasoko dituzte.

Denboraldiko helburuak

Zarauzko eta Gasteizko Iron Man erdiak eta Donostiako triatloi olinpikoa (Onditz) dira egutegian gorritz markatuta dituzten zitak –ekaina eta uztailan dira probak; denboraldian murgilduta daude jada, halere–.

Euskal Herriko Triatloi zirku-tokioak dira proba horiek. Hori da sasoiaren ardatz nagusia, nahiz eta urtean zehar aritzen diren han eta hemen, itsas-trabesiak, zikloturisten irteerak...egiten. Whatsapp talde bat dute, entrenatzeko geratzeko. Norbaitek Trinkoko kide izan nahiko balu, 695 74 33 00 edo 635 73 68 52 zenbakietara deitu dezake.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 12

Michelin, 12:00etan

Ostadar SKT - Sanse
Kadeteen Ohorezko maila,
23. jardunaldia.

Michelin, 15:15ean

Ostadar SKT - Hondarribia FE
Infantilen Ohorezko maila,
txapeladunen fasea, 6. jardunaldia.

Aita Mari, Zumaia, 16:00etan

Zumaia FK - Ostadar SKT
Emakumezkoen Lurralde maila,
igoera fasea, 11. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Ostadar SKT - Asoleus CF
Erregionalen Igo maila, Kopa,
11. jardunaldia.

Herrera, Donostia, 19:30ean

Iluari FK - Texas Lasartearra
Erregionalen Igo maila, Kopa,
11. jardunaldia.

PALA

Ostirala 11

Loidi Barren frontoia, 18:00etan

Emakumeen pala txapelketa
antolatuko du Lasarteko Talde
Feministak. Bikoteak zozketa bidez
egingo dituzte pilotalekuan bertan.

MARTXA

Larunbata 12

Okendo plaza, 12:00etan

Herriko hainbat eragilek antolatuta,
Berdintasunaren aldeko Igo martxa
egingo dute. Oinez, bizikletaz edo
patinetan egin daiteke.

ZUNBA

Igandea 13

Okendo plaza, 11:00etan

Herritarrek gorputza astintzeko
parada edukiko dute igande goizean
zehar, Zunba maratoin. Eguraldi
txarra egiten badu, Villa Mirentxu
alboko trinketera mugituko dira.

ARETO-FUTBOLA

Herriko areto-futbol txapelketa

Ostirala 11

Michelingo kirol gunea, 19:45ean

Viña del Mar - Txindoki

Michelingo kirol gunea, 20:45ean

Also - Txoko

Udal Kiroldegia, 20:55ean

ISU Leioak - Mondrate CD

Gipuzkoako Igo maila,

21. jardunaldia.

Larunbata 12

Michelingo kirol gunea, 9:15ean

TSST - Urdaneta HK

Michelingo kirol gunea, 10:15ean

Kattagorri Insausti - Izkiña

Michelingo kirol gunea, 11:15ean

El Punto - Trumoi

Michelingo kirol gunea, 12:15ean

Reformas Lagunak - Ilargi

Tecnun, Donostia, 10:30ean

Erain - Lasarte Kafe Bar Ostadar
Gipuzkoako jubenilak, 17. jardunaldia.

SASKIBALOA

Larunbata 12

Bidebieta kiroldegia, Donostia, 20:00etan

Easo 01 - Ostadar SKT

Errendimenduko kadete neskak,
bigarren fasea, 7. jardunaldia.

Igandea 13

Manuel Muñoz, Eskoriatza, 9:30ean

Eskoriatza - Ostadar SKT

Partizipazioko kadete neskak,
bigarren fasea, 11. jardunaldia.

Udal Kiroldegia, 11:00etan

Ostadar SKT - Allerru SBT

Senior gizonezkoen 3. probintziala,
bigarren fasea, 9. jardunaldia.

San Viator, Gasteiz, 12:00etan

San Viator - Ostadar SKT

Junior neskak, Euskal Liga, 7. jard.

Labegaraia, Bergara, 12:00etan

Soraluze Bergara - Ostadar SKT
Partizipazioko junior neskak,
bigarren fasea, 5. jardunaldia.

PILOTA

Ostirala 11

Michelin pilotalekua, 20:30ean

Arteaga II - Apraiz/ Agirre - Larunbe.
Aurretik, Berasaluze II - Aretxabaleta/
Elezkano II - Beroiz.

Larunbata 12

Michelin pilotalekua, 11:00etan

Intza KE - Hernani
Senior Igo maila, Udaberrikoa,
finalerdiak. Itzuliko norgehiagoka.

BOLEIBOLA

Igandea 13

Pio Baroja, Donostia, 10:00etan

Mundaiz - Lasarte-Usurbil BHI
Jubenil neskak, Gipuzkoakoa, 9. jard.

BOLOAK


Igandea 13

Michelingo bolatokia, 9:00etan

Lehendakari txapelketaren 3. tirada
jokatuko da, goiz eta arratsaldean.

— Agenda —

Larunbata 12, 17:00etan, Manuel Lekuona kultur etxea



Harremanak aztertzen

Anita Maravillas taldeak 'Pintto, pintto' haur antzerkia eskainiko du. Arropa garbitegi batean, txukuna, ordenatua eta umore txarrekoa den langile bat, bere lankidearekin harremandu behar da. Azken hau, despistatua, desordenatua eta oso alaia da, eta ez ditu arauak gustuko. Bapatean galdutako txakurkume bat agertuko da garbitegian, eta agerpen honek munduarekiko duten ikuspegia eraldatuko die. Sarrera, 3,80 euro.

Lasarte-Oria

Emakumeen Nazioarteko eguna

SEMBLANTE ANDALUZ

Ostirala 11, 19:00etan

Mabel Arciniega Debagoieneko Ospitaleko Urgentzietako sendagileak elikadura eta minbiziaren arteko loturaz hitz egingo du. Ostein, afaria eta dantzaldia izango dira. Semblante Andaluz elkarteak antolatua.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 11, 19:30ean

Lan eta Lan antzerki taldeak 'Un espi-ritu burlon' antzerkia eskainiko du. Noel Cowarden lanaren moldaketa bat eskainiko dute. Sarrera, 3 euro.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 12, 20:00etan

Helduentzako zinea atalean, 'Bendita calamidad' filma ikusteko aukera izan- go da. Sarrera, 5,50 euro.



MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 13, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, 'Zootro- polis' animaziozko filma 3Dn ikusgai izango da. Sarrera, 4,80 euro

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 13, 19:30ean

Helduentzako zinea atalean, 'Bendita calamidad' filma ikusteko aukera izan- go da. Sarrera, 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 18, 22:00etan

Okendo zinema taldeak antolatzen duen zine forumean '45 años' filma eskainiko da. Sarrera, 5,50 euro.



Gure Esku Dago

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 11, 19:00etan

'Katalunya-Euskal Herria Elkarri begira' Topagunea antolatu du Gure Esku Dagok. Kataluniatik Sumate taldeko kideak eta Jesus Uzkudun CCOO Euskadi sindikatu- ko kide ohiak parte hartuko dute.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 15, 19:00etan

'Eta kirolariak zer diote erabakitze-ko eskubideari buruz? Zer erabaki nahi dute?' mahai ingurua antolatu da. Eli- tean dauden edo egon diren kirolariak izango dira bertan solasean.

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 18, 19:30ean

Danok Kideren XI. Musika Topaketen barruan, Dana hari laukotearen eta Verushka hirukoaren kontzertua.

Proiektzio digitala

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 19, 20:00etan

Lasarte-Oriako udalak eskaintzen dituen proiektzio digitalen barruan, 'Floren- cia y la Galeria Uffizi' dokumen- tala eskainiko da. Aurresalmenta, 7,50 euro eta egunean, 9 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Martxoa amaiera arte

'Lasarte-Oriatik mundura, mundutik Lasar- te-Oriara' zikloaren barruan, Garikoitz Lasa donostiarrak egindako Tindoufeko kanpa- mentuetako irudien erakusketa ikusgai.

— Herritarren txokoa —

Odol ateratzea

Hilabete honetan azken astelehena Pazko astelehena izanik, odol atera- tze eguna aste bete aurreratu da. Hori dela eta, martxoaren 21ean eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

Biyak Bat Sevilla eta Caceresera bidaia

Biyak-Bat jubilatuen etxeak Sevilla eta Cacereserako bidaia antolatu du maiatzaren 20tik 29ra.

Hilabete bereko 27tik ekainaren 5era antolatuta zen beste bat, baina autobusa bete da dagoeneko. Interesatuak izena eman beharko dute astelehenetik ostiralera 10:30etatik 12:30etara.

— Sarean —

Emakumeak zientzian karta-jokoa



Elhuyarrek eta, haren barruan, Zientzia Unitateak emakume zientzialarien lana plazaratzeko konpromisoa dute, haien proiektuen bidez. Proiektu horietako bat emakumeak zientzian karta-jokoa da.

Emakumeak zientzian karta-jokoaren helburua da emakumezko zien- tzialari garrantzitsu eta, askotan, ezezagunak ezagutaraztea. Jokoak, gai- nera, haurrentzat inspirazio-iturri izan daitezkeen ereduak ematen ditu.

Finantziario kolektiboko kanpaina bati esker (crowdfunding) sortu da proiektu hau. Luana Gamesek ingelesez, frantsesez eta gaztelaraz eskain- tzen du, eta Elhuyarrek, berriz, euskarara ekarri du. Nahi duen herritarrak inprima dezake karta-jokoa Elhuyarren web orrialdean. Deskargatu doan pdf fitxategian, "Erosi" botoia sakatu behar da.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus

'Amalur' apirilaren 16an Lasarte-Orian

Irakurle Txokoaren eskutik, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen abentura berria

Lasarte-Oriako txikiek herriko pailazo bihurriak, Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko aukera berria izango da apirilean. 'Amalur' baserritarren oroimenez egindako ikuskizuna da eta baserri munduan dago girotua. Bi saio izango dira herrian eta txartelak salgai jarriko dira gaur arratsaldean.

TXINTXARRI

Marimototsek baserri-tarra izan nahi du eta horretarako ilargiren baserrira doa ikastera. Pirritx eta Porrotx bere lagunak Marimo bisitatzera joan eta milaka abentura biziko dituzte bertan. Lagun berriak ere egingo dituzte eta hau guztia, abesti eta kolorez betetako emanaldian.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots herriko pailazoen 'Amalur' ikuskizun berria Lasarte-Orian izango da apirilaren 16an.

Pailazo bihurriek herriko Irakurle Txokoari laguntzeko bi saio eskainiko dituzte egun horretan, bata 16:30ean eta bestea 19:00etan.

Finantzaketa propioa

Lasarte-Oriako irakurle txokoak hiru ikasturte daramatza eta gure herrian euskal literaturaren arnagunea dugu.

Hilabetero biltzen dira euskal idazle baten edo euskarara itzultitako liburu bat aitzaki eta orain Danele Sarriugarteren laguntzaz liburuak aztertzen dituzte. Idazleen bisitak ere izaten dituzte bi hilabete behin.

Jardun hau aurrera eramateko, diru iturri propioak erabiltzen ditu taldeak eta hau eskuratzeko hainbat ekintza burutzen ditu. Azken hiru hileko honetan, esate baterako, bi ekitaldi nagusi antolatu ditu.

Batetik, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Amalur' ikuskizun berriaren emanaldia dago. "Diru hori lortzen laguntzeko eskaintza egin zigun gure herriko pailazo taldeak eta guk, noski, onartu egin diegu eskaintza eta oso eskertuak gaude eskaini diguten aukeragatik," adierazi dute Irakurle Txokoko kideek.

Bestetik, otsailaren 27an, Xirimiri elkartearen egin zen bertso afari literarioa.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots baserri munduan murgilduko dira berriro ere 'Amalur' ikuskizunean.

KATXIPORRETA

Saio honek Txokoko lagunek azpimarratu legez, "hileroko saioez gain, herritarrei literaturaz gozatzeko bestelako saio bereziak eskaintzea du helburu".

Sarrerak eskuragarri

Hori horrela izanik, taldeko kideek aipatu dutenez, 'Amalur' ikuskizunaz gozatu nahi duten herritarrek sarrerak eskuragarri izango dituzte gaur arratsaldetik aurrera.

Jalgi kafe-antzekian eta Artizar tabernan izango dira salgai eta prezioa 7 eurokoa da.

Martxoko hitzordua

Hau guztiaz gain, hilabete honetako hitzordua ere gogoratu beharra dago.

Oraingoan, Josu Martinez idazlea bilbotarra etorriko da Irakurle Txokora 'Tunelak, izarak, moztarrok eta bafleak' liburuari buruz txokoko kideekin hitz egitera.

Tene Mujika bekaren laguntzaz idatzitako kronika-erreportaje sorta da liburuak. Honetan euskal gatazkari lotuta, azken 50 urteetan gertatu diren hamar ihesaldi eta ihes-ahaleginen kronika aurkezten ditu idazleak.

Kronika hauen guztien nondik norakoak aztertzeko martxoaren 22an, 18:30ean Irakurle Txokoko saioa izango da Manuel Lekuona kultur etxean.



Ttakunen proiektu berriari buruzko bilera

Ttakun kultur elkarteak asteazkenean martxoaren 16an, bilera informatiboa egingo du Manuel Lekuona kultur etxean.

Horretan, elkartearen zuzendaritzak bazkide talde batek zuzendaritzaren onespenerkin Iñigo de Loiola kaleko lokalean landu duen proiektu berriaren nondik-norakoak azalduko ditu.

Bazkide guztiei irekitako bilera da honakoa eta horregatik, elkartearen zuzendaritzak gonbita egiten die asteazkenean, Manuel Lekuonako hitzaldi aretora hurbiltzeko.

Azalpen teknikoaren ostean, lokalean egindako berrikuntzak ikusteko aukera ere izango dute hurbiltzen direnek, lokalaren bisita egingo baita segidan.


parafarmazia

Pablo Mutiozabal z/g, Lasarte-Oria
Tel. 943 36 96 79



**HAUR-ELIKAGAIEN
HAMABOSTALDIA**

martxoaren 5etik 20ra

3x2

haurren
elikagaietan

%10

haurren
kosmetikoetan

*Lehenengo esnean (bularreko haurrentzat), Nutriben eta Hipp produktuetan izan ezik